

Prentsa-Oharra

[EUS] Euskal musikaren sektoreak 2025a arrakasta handien eta egiteko geratzen diren erronken artean ixten du

Euskal musikarentzat 2025a arrakasta eta jarduera sortzaile handiko urtea izan da, baina sektoreak kezka begiratzen dio makrokontzertu zein ekoizpen handi eta proiektu txiki eta ertainen arteko polarizazioari; azken horiek baitira musika-ehunaren oinarria.

Donostia [2026.01.16]. – Musika Bulegoa elkarteak 2025eko euskal musika sektorearen balantzea aurkezten du. Hau, elkarte, industria, areto, musikagile eta musikarien ekarpenetan oinarrituta, bai eta 2026ari begira irekitzen diren erronka nagusiak ere.

Musika industria: arrakasta historikoak eta oinarri aula

Musika Industriaren Elkartetik (MIE), Amaia Ispizua lehendakariak azpimarratu du 2025a “urte historikoa” izan dela euskarazko musikarentzat, estadio handiak betetzeko gai izan diren proiektuekin.

Hala ere, ohartarazi du hazkunde hori beste errealitate askoz ahulago batekin batera doala: behetik, musika-ehuna sostengatzen duten milaka talde eta artista txiki eta ertainena, zeinentzat musikatik bizitzea oraindik ere erronka handia den. Sarreraren salmentaren zifra errekorren eta kontsumo digitalaren hazkundearen arren, hau “ez da modu ekitatiboan banatzen, eta proiektu handietan pilatzen da”.

Maila artistikoan, euskal eszenak bizirik, anitz eta sortzailea izaten jarraitzen du, gorabidean dagoen eszena batekin, non emakumeek gidatutako proiektu gehiago dauden, “nahiz eta benetako berdintasuna oraindik lortzeko dagoen”.

Industriaren ikuspegia: diskoetxeak eta ekoizpena

Elkar diskoetxeko **Andrés Camiok** 2025a urte ona izan dela azpimarratu du, oro har: salmenta digitalek eutsi egin diote eta formatu fisikoak emaitza onak izan ditu. Azken aldiko ekoizpen batzuen maila altuak salmenten gorakada nabarmena ekarri du, batez ere Durangoko Azokan.

Bestalde, **Bidean Produksio**ak **Julen Caminosek** 2025 urtea “oso aktiboa, baina kezka handiz bizitakoa” izan dela azaldu du. Publikoak ekitaldi handietan kontzentratzeko joera daukala azaldu du, eta horrek zaildu egiten du proiektu txiki eta ertainen bideragarritasuna. Aretotik sarrerak saltzeko zailtasunak eta edukiera txiki zein ertaineko espazioak pixkanaka desagertzeak egoera bereziki zaila sortzen dute hasi berri diren taldeentzat.



Kontzertu-aretoak: etengabeko aldarrikapena

Gotzon Uribe, **Kultura Live** elkarteko lehendakariak gogorarazi du kontzertu-aretoen helburuak aurreko urteetako berberak direla. Alde batetik, “administrazioek aretoentzako zuzeneko laguntza ekonomikoak sortzea, bai programaziorako bai ekipamenduetarako”. Bestetik, “babesgabeziaren egoerari aurre egiteko” daukaten beharra, diru publikoarekin finantzatutako programazio publikoekiko –auditorio, pabiloi, espazio ireki edo ekitaldi handiek– areto pribatuen jarduerarekin lehia zuzena egiten dutelako, eta etengabe ugaritzen ari direlako.

Musika garaikidea eta klasikoa: jarduera handia eta egiturazko erronkak

Musikagileak elkarteko presidente eta konpositore **Helga Ariasek** 2025a “Euskal Herriko musika garaikidearentzat bereziki emankorra eta dinamikoa” izan dela adierazi du. Jaialdiek, sorkuntza-guneek eta kultura-eragileek lanerako gaitasun handia, proposamen aniztasuna eta berrikuntzarako borondate argia erakutsi dute, sektorearen heldutasuna eta garrantzia berretsiz.

Hala ere, jarduera bikain horrekin batera “egiturazko erronka garrantzitsuak” daude. Besteak beste, “publikoak handitu eta dibertsifikatzeko beharra, kultura-bitartekaritza estrategien eta proiektu pedagogikoen bidez; ekoizpen-kostuen igoera, gero eta konplexuagoak diren proposamen artistikoekin lotuta; eta aurrekontu estuen testuinguruan, anbizio artistikoaren eta bideragarritasun ekonomikoaren arteko tentsioa. Musikagileak elkarteak nabarmendu du ezinbestekoa dela hainbat urtetarako finantzaketa eredueta bideratzea, eta sareko lana, zein erakundearen arteko lankidetzaren indartzea, sektorearen jarraipena eta garapena bermatzeko.

Musikariak: polarizazioa eta prekaritatea

Musikari elkartetik, **Sara Azurzak** eta **Marina Landak** adierazi dute baliabide ekonomikoaren gabeziak zaildu egiten duela elkarrearen egitura sendotzea eta ezarritako helburuetako batzuetan aurrera egitea. Era berean, “ezinbestekotzat” jotzen dute Euskal Herriko musikarien arteko kidetasun sentimendua eta babes kolektiboa indartzea.

Ikuspegi zabalago batetik, Musikariak adierazi du musikarien lan-ezegonkortasunak sektorearen errealitate bat islatzen duela, beste esparru batzuetan ikusarazten ez dena. Eta, babes espezifiko handiagoa eskatu du egoera ahulenetan sorkuntzari eusten diotenentzat.

Musikari gisa egindako balorazio pertsonalean, Sara Azurzak azaldu du euskal musikaren industria hedatzen eta dibertsifikatzen ari dela, baina, aldi berean, polarizazio prozesu bat ere bizi duela. Makrokontzertuen protagonismo gero eta handiagoa, sarri, formatu txiki zein ertainen kaltetan gertatzen da, zeinentzat “ez dagoen behar beste baliabide, espazio eta zirkuitu egonkorrik”. Testuinguru horretan, azpimarratu du beharrezkoa dela sektoreak ordezkari handiagoa izatea eta musikarien errealitatearen aniztasuna kontuan hartuko duten politikak ezartzea, bai eta emakumeen presentzia, ikusgarritasuna eta parte-hartzea indartzea ere.





Batzen
gaituena.

Ilido beretik, **Ana Arsuagak** (Verde Prato) positiboki baloratu ditu bere ibilbide artistikoa eta sorkuntza zein lankidetzarako aukerak hainbat mailatan: tokiko, estatuko eta nazioarteko esparruetan. Hala ere, ohartarazi du eguneroko errealitatean, sektorea oraindik urrun dagoela “bizitza profesional duin bat” bermatzeko baldintza ekonomikoak eskaintzetik. Bere ustez, musikariak dira oraindik ere “katebegi ahulena”, industria osoa haien sormen-lanean oinarritzen bada ere.

2026rako erronkak

Musika Bulegoak jasotako balorazioek musika sektorearen diagnostiko partekatua marrazten dute: sormen handia, aktiboa eta arrakasta handiak sortzeko gai da, baina barne-desoreka handiak ditu. 2026ari begira, erronka nagusiak hauek dira: oinarri-ehuna indartzea, aretoen zein formatu txiki eta ertaineko zirkuituen biziraupena bermatzea, musikarien lan-baldintzak hobetzea, finantzaketa eredu egonkorragoetara bidea egitea eta hazkunde artistikoan lagunduko duten kultura-politikak garatzea, epe luzerako egitura iraunkorra dutenak.

Informazio gehiago eta elkarrizketak:

komunikazioa@musikabulegoa.eus

688 843 119 (Ruth Manzano)

musikabulegoa.eus



Nota de prensa

[ES] El sector musical vasco cierra 2025 entre grandes éxitos y retos pendientes

2025 ha sido un año de gran actividad creativa y éxitos para la música vasca, pero el sector mira con preocupación la polarización entre los macroconciertos y grandes producciones y la realidad de los proyectos pequeños y medianos, que forman la base del tejido musical.

Donostia [16.01.2026]. – La asociación Musika Bulegoa presenta el balance del sector musical vasco de 2025, elaborado a partir de las aportaciones de asociaciones, industria, salas, compositores/as y músicas/os, así como los principales retos que se abren de cara a 2026.

Industria musical: éxitos históricos y una base frágil

Desde **Musika Industriaren Elkartea (MIE)**, su presidenta **Amaia Ispizua** subraya que 2025 “ha sido un año histórico para la música en euskera”, con proyectos capaces de llenar grandes estadios.

Sin embargo, advierte de que este crecimiento convive con una realidad mucho más frágil: la de miles de grupos y artistas pequeños y medianos que sostienen el tejido musical desde abajo y para quienes vivir de la música sigue siendo un gran reto. A pesar de las cifras récord de venta de entradas y del crecimiento del consumo digital, “no se reparte de forma equitativa y tiende a concentrarse en los grandes proyectos”.

A nivel artístico, la escena vasca continúa siendo viva, diversa y creativa, con una escena emergente en la que hay una mayor presencia de proyectos liderados por mujeres, “aunque la igualdad real sigue siendo una tarea pendiente”.

La visión de la industria: discográficas y producción

Desde la discográfica **Elkar**, **Andrés Camio** valora 2025 como un buen año en términos generales, con un mantenimiento de las ventas digitales y un comportamiento positivo del formato físico. El alto nivel de algunas producciones recientes ha contribuido a un incremento notable de las ventas, sobre todo, en la Feria de Durango.

Por su parte, desde **Bidean Produkzioak**, **Julen Caminos** describe 2025 como un año “muy activo, pero vivido con preocupación”. Señala que el público tiende a concentrarse en los grandes eventos, lo que dificulta la viabilidad de los proyectos pequeños y medianos. La dificultad para vender entradas en salas y la progresiva desaparición de espacios de pequeño y mediano aforo generan un escenario complicado para los grupos que están empezando.



Salas de conciertos: una reivindicación constante

Desde **Kultura Live**, su presidente **Gotzon Uribe** recuerda que los objetivos de las salas de conciertos siguen siendo los mismos que en años anteriores. Por un lado, “la creación de ayudas económicas directas por parte de la administración destinadas específicamente a las salas, tanto para programación como para equipamientos”. Por otro, la necesidad de “hacer frente a la situación de indefensión” en la que se encuentran las salas privadas frente a programaciones públicas financiadas con fondos públicos –auditorios, pabellones, espacios abiertos o grandes eventos– que compiten directamente con su actividad y no dejan de aumentar.

Música contemporánea y clásica: alta actividad y retos estructurales

La presidenta de **Musikagileak**, la compositora **Helga Arias**, valora 2025 como “un periodo especialmente productivo y dinámico para la música contemporánea en el País Vasco”. Festivales, espacios de creación y agentes culturales han mostrado una elevada capacidad de trabajo, diversidad de propuestas y una clara voluntad de innovación, confirmando la madurez y relevancia del sector.

No obstante, este alto nivel de actividad viene acompañado de “desafíos estructurales importantes”. Entre ellos, “la necesidad de crecer y diversificar públicos mediante estrategias de mediación cultural y proyectos pedagógicos, el aumento de los costes de producción asociados a propuestas artísticas cada vez más complejas y la tensión entre ambición artística y viabilidad económica en un contexto de presupuestos ajustados”. Musikagileak subraya la importancia de avanzar hacia modelos de financiación plurianual y de reforzar el trabajo en red y la colaboración interinstitucional como claves para garantizar la continuidad y el desarrollo del sector.

Músicas/os: polarización y precariedad

Desde la asociación **Musikari**, **Sara Azurza** y **Marina Landa** apuntan que la falta de recursos económicos dificulta consolidar la estructura de la asociación y avanzar en algunos de los objetivos planteados. A su vez consideran “imprescindible” reforzar el sentimiento de pertenencia y el apoyo del conjunto de músicos/as de Euskal Herria.

En un plano más amplio, Musikari señala que la inestabilidad laboral de los y las músicas refleja una realidad que no siempre se visibiliza en otros ámbitos del sector, y reclama un mayor respaldo específico para quienes sostienen la creación desde posiciones más precarias.

Desde una valoración personal como música, **Sara Azurza** apunta que, aunque la industria musical vasca se está expandiendo y diversificando, también atraviesa un proceso de polarización. El protagonismo creciente de los macroconciertos se produce a menudo en detrimento de los conciertos pequeños y medianos, para los que “no existen suficientes recursos, espacios ni circuitos estables”. En este contexto, subraya la necesidad de una mayor representación del sector y de políticas que tengan en cuenta la diversidad de realidades de los y las músicas, así como de reforzar la presencia, visibilidad y participación de las mujeres.



En una línea similar, **Ana Arsuaga (Verde Prato)** valora positivamente su recorrido artístico y las posibilidades de creación y colaboración a distintos niveles, tanto locales como estatales e internacionales. Sin embargo, destaca que, trasladado al plano práctico, el sector sigue estando lejos de garantizar unas condiciones económicas suficientes para sostener “una vida profesional digna”. En su opinión, las y los músicos continúan siendo “el eslabón más débil de la cadena”, a pesar de que toda la industria se sostiene sobre su trabajo creativo.

Retos para 2026

Las valoraciones recogidas por Musika Bulegoa dibujan un diagnóstico compartido: un sector musical creativo, activo y con capacidad de generar grandes éxitos, pero con importantes desequilibrios internos. De cara a 2026, los principales retos pasan por reforzar el tejido de base, garantizar la supervivencia de las salas y de los circuitos pequeños y medianos, mejorar las condiciones laborales de los y las músicas, avanzar hacia modelos de financiación más estables y desarrollar políticas culturales que acompañen el crecimiento artístico con estructuras sostenibles a largo plazo.

Más información y entrevistas:

komunikazioa@musikabulegoa.eus

688 843 119 (Ruth Manzano)

musikabulegoa.eus

